BAZTANGO KONTSONANTISMOA (*)

Donostia, 1983-III-25

Pello Salaburu

Nik dakidala, ez da ikerketa zuzen gehiegi egin euskararen fonetikari buruz, denok aipatzen ditugun klasikoak (LARRASQUET eta N. TOMAS batez ere) kenduz gero. Horrela, beti ari gara iturri berberetako ura behin eta berriz edaten, kontutan hartu gabe euskalki batetan egindako oharrek ez dutela, beharbada, beste euskalkietarako balio edo ahoskerak ere –zergatik ez– aldakorrak direla eta orain duela mende bat entzuten zen "s" soinua ez dela gaur egun ahozkatzen dena. Gauza guzti horiek gerta litezke. Horregatik, liburuek diotena kontutan hartzekoa bada ere –kontutan hartu behar da, nahi ta ez–, ezin bestekoa zaigu tresnabidezko lanaz baliatzea, tresneriak ere bere muga zehatzak dituela aldez aurretik ongi aski baldin badakigu ere. Horrela, ordua da espektrografia erabiltzeko (orain badira ekipoak Euskal Herrian) bokalak nola ebakitzen diren eta kontsonanteen zenbait xehetasun jakin nahi baldin badugu. Berdin, kontsonanteen ahoskunea ere palatografiaren bidez azter daiteke. Kontu horiek argituko lukete baita, zalantzarik gabe, euskal azentuaketari buruz hainbeste aldiz izan dugun eta oraingoz ere amaitu gabe dagoen eztabaida.

Beste lan luzeago baten zati txikia den lan honetan aurkezten ditut palatografiako teknikak erabili ondoren Baztango kontsonontismorako atera ditudan konklusioak. Ikusiko den moduan, zeharo baztertzen naiz zenbait puntutan orain arte esandakotik. Hala ta guztiz, hemen diodana ez da bere errotik atera behar:
hizkuntza bateko soinuen deskribapen fonetikoa egin nahi dugunean, soinu horien deskrizio ideiala egiten da eta deskrizioa ez dagokie inoiz ere bete betean errealitatean entzun daitezkeen soinuei, edo fisikoki azter daitezkeen hotsei. Goazen, bada, besterik gabe, soinu horien azalpena ematera.

Leherkariak (/p/, /b/, /t/, /d/, /k/, /g/)

"p": Leherkari, ezpainetako, ahoskabea. NAVARRO TOMASek dioen moduan, ez da gehiegi erabiltzen fonema hau, beste fonemen erabilerarekin

* Lan hau, neurri batetan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako dirulaguntza bati esker burutua izan da.

konparatzen baldin badugu. Mailebuetako hitz askotan —zenbat eta zaharrago hobeki gorde da lege hau— ahostun egiten da hitz haseran baldin badago. Horrela "bake", "bekatu", etab., baina ez, ordea, "prezio", "puntu" eta besteetan. Ohi den legez [p] traskribatuko dut.

Dakigun moduan eta betidanik esan izan den bezala, soinu hau ez da ugari ageriko bokal artean. Ematen den hersketa "t" eta "k" soinuen kasuan bezala, tinkatua dugu eta berehala darraion leherketa laburra izanen da. NAVARRO TOMASen (1925, 603) ahostuna, silaba haseran baldin bada. Nik ez dut horrelakorik aurkitu.

Terminologian aldaketa bat egin dut. Hemendik aurrera "ahostun" deituko ditut orain arte "ozen" deitu izan ditugunak, nire ustez aise egokiago baita lehenbiziko hitza (ingelesez ere "voiced"). "Ahoskabe" dira, berriz, ahoskorden dardararik gabe ebakitzen ditugunak (orain arteko "gorrak").

"b": Leherkari, ezapainetako, ahostun: [b]. Askotan igurzkari ahozkatzen da eta batzutan hersketa hori guztiz desager daiteke, fonema bera ere desagertzen delarik.



[p] eta [b]

Euskaraz, ahoskabeak ebakitzen ditugunean giharreen tinkadura ahostunetan baino handiagoa da, geroago ikusiko den moduan. Irudian agertzen denez, soinu hauek ezpainetan ebakitzen dira eta denbora berean mihiak ondotik ahozkatuko den soinuaren ahoskunea hartzen du. Ingurune berezi batzutan, bokal artean batipat eta ahoskordak juntu daudelarik, ezpainak ez ditugu hersten behar bezala eta arteka horretatik haizea gelditu gabe ateratzen da. Kasu honetan ([b̥] igurzkaria) tinkadura muskularra ere [b] arrontean baino eskasagoa dugu:



[β̞] igurzkaria

Leherkari hauek ("b", "d", "g") sudurkari baten ondotik datozenean, laburtu egiten dute hersketa denbora ("abendua", "ganbara", "ongi") sudurkariak asimilatzen duelako leherkariaren hersketaren parte bat.

Igurzkariaren kasuan ([β̞]) berriz, ezpainen parada nahiko aldakorra da, irekiago edo hertsiago jartzen direla hiztunaren arabera.

> "La misma consonante —seinalatu zuen NAVARRO TOMASek—, en una palabra determinada, aparece en la pronunciación de L, según las circunstancias de cada caso, con abertura casi vocálica, con estrechez más o menos cerrada o con oclusión completa" (NAVARRO TOMAS 1925, 609).

Ohar honek balio digu Baztango kasuan ere.

(leherdakariak: "bada", "yanba"; igurzkariak: "abria", "aberatsa", "arbie").

"t": Leherkari, hortzetako, ahoskabea. Gaztelaniaz gertatzen den bezala, mihi puntak goiko hortzen kontra jarriz hertsi egiten du haizearen bidea. Fonema hau, fonetikoki [t], ahostun egiten da hitzegiterakoan bokalen artean edo bokal aurrean gertatzen baldin bada, [p]rekin gertatzen den bezala.

("Torri", "atorra", "traketsa").

"d": Leherkari, hortzetako, ahostun: [d] . [b]ri buruz egindako ohar bera egin behar dugu hemen ere. Gainera, sudurkari baten ondotik baldin badator, sudurkariak asimilatu egiten du horzkariaren hersketaren parte bat, NAVARRO TOMASek (1925) egindako lanetan argi ikusten den moduan. [d] eta [t], biak, apikariak dira eta mihi puntak gaineko hortzak oso osoan jotzen ditu hortzen hasieratik hasita, espainolez egiten dugun antzera. Ebake-

ra hain azpitik hasten denez, mihiaren azpiko aldeak beheko hortzak ere jotzen ditu, bi hortzlerroak oso hurbil baitaude. Ingelesezko horzkaria, adibidez, ebakera diferentez egiten da, aise gorago eta azpiko hortzak mihiak ezertarako ukitu gabe.

Aitzineko kasuan artikulazioaren organoa ezpaina zen: oraingoan, berriz, mihitxapala. Kasu honetan, mihiak hersketa egiten duen bitartean, ezpainak hurrengo soinua artikulatzeko joeran paratuko dira.



[t] eta [d] hortzetakoak

Hauxe da neuk egindako palatogramak eman didana:

Horzkari ahostuna, ezpainetako kontsonanteak bezala, igurzkari bihurtzen zaigu zenbaitetan:



[ð] igurzkaria



(Leherkariak: "doike", "duzu"; Igurzkariak: "ardie", "ordotsa", "badakit").

"k": Leherkari, belarreko, ahoskabea. Beste hizkuntzetan bezala, ahoskunea aurreratu edo atzeratu egiten da ondoko bokalen eraginez. [k]ren eba-

kera ez da [p] eta [t] leherkarien bezain garbia eta batzutan, hitzaren azken soinua denean, edo hurrengoa kontsonantez hasi, inplosiokari dugu leherkari baino. Horregatik, erdaldunek ez dute "k" hau guk bezain erraz aditzen, MITXELENAk seinalaztatu zidan moduan. Hala ere, K. MACMURRAUGH (berak esana) ez dago honekin ados eta haren ustez, "k" leherkari dugu beti euskaraz.

NAVARRO TOMASek ere (1977, 138) hauxe bera dio gaztelaniazko "k"ri buruz:

> "La *k* es final en algunas palabras de origen extranjero; esta *k* se pronuncia también completamente implosiva y relajada, llegando a veces a oírse como una [g] más o menos sorda."

Hiru leherkari ahoskabe hauek, nik egindako oharpenei dagokienez behintzat, beti aspiraziorik gabe ebakitzen ditugu. Jakina, Frantzia aldeko euskalkietan —eta Baztango azpieuskalkia lapurteraren hurbilekotzat hartzen da— ez da horrelakorik gertatzen. Hala ta guztiz, "k"ren kasuan batez ere gertatzen da hau, hitz amaieran baldin badago eta ahoskabe ebakitzen denean, aspirazio puntu batek jarraitzen dio, sonogramek erakusten duten moduan. Hauen arabera, baita, sarri askotan ahostun gisara ebakitzen dira berezko ahoskabe hauek bokal artean daudelarik: "ja[g]in", "harri[ð]u", etab.

("Kolkua", "kopeta", "kokine").

"g": Leherkari, belarreko, ahostun: [g]. Aurreko [b] eta [d] kideen antzera, fonema hau ere aunitzetan igurzkari da guretako: Baztango euskara guztiz laxoa, kasurik egin gabe bezala ahozkatua da. Arrazoirik handienetako bat orain aztertzen ari garen fonema hauen igurzketa eta desagerpenean aurki daiteke, zalantzarik ez.

Gipuzkoan, eta beti NAVARRO TOMASen lanari narraiola, "l"ren ondotik "d" soinua leherkari dugu. Nire ustez, lege hau ez da hain gertuki mantentzen Baztango mintzoan, zeren eta "balin", "galetu" eta horrelako bakar batzu ere entzuten baitira noizbehinka.

Soinu belarrak ebakitzerakoan mihi gorputzaren atzekaldeak (bizkarratzeak) ahosabai biguna jotzen du aire pasa guztiz hertsiz (leherkariak direnean) edo zirrito estu bat utziz (igurzkariaren kasuan [g]). Ebakera ematen den bitartean, mihi puntta beheratu egiten dugu azpiko hortzen oietaraino, batzutan. Bestaldetik, mihi gorputza aurreratu edo atzeratu egin daiteke, belarrarekin batera artikulatzen ditugun bokalen arabera. Horrela, "a", "o" eta "u"rekin benetazko belarrak diren bitartean, "i" eta "e"rekin ahoskunea aitzindu egiten da pixka pixkat: sabaiekoak dei genitzake azkeneko kasu honetan.



|k| eta |g| leherkariak



|g| igurzkaria

(Leherkariak: "gu", "goizian", "hangua"; Igurzkariak: "argie", "agua", "ageri").

Orain arte deskribatu ditugun soinuetan agertzen zaizkigu CHOMSKY-HALLEren sistima bitarreko ezaugarri nagusienetako zenbait:

1. Soinu batzutan ahoskorden dardara ematen da: ahostunak deitu ditugu horiek. Gure kasuan, [b], [d] eta [g]. Besteak, terminologia ingelesa —MITXELENAren ustetan aise egokiagoa— jarraituz "ahoskabe" deitu ditugu. Terminologia klasikoan ere horrelaxe deitu izan dira.

2. Soinu batzutan ahogingilak surtzuloetako pasabidea hersten du eta orduan, sudurrak osatzen duen kaxak ez luke inolako durundi akustikorik edukiko. Hauxe dugu orain arte deskribatu ditugun soinuen kasua.

Bestalde, soinu batzu jarraikiak dira (soinua ematerakoan ez dago eten garbirik) eta beste batzu, berriz, ez. Azkenengo kasu honetan hersketa bat dago: haizea gelditu egiten da nonbait gainditu ezin duen eragozpen batekin topo egiten baldin badu. Eragozpen hori delarik, soinu "garbietako" kaxa akustiko bakarra (zintzurretik ezpainetaraino) bitan —edo gehiagotan— bana daiteke eta ebakera horiek direla bide, ateratzen den soinuaren kualitate akustikoa guztiz aldagarria da. Horrela ebakitzen dira igurzkariak (jarraikiak) eta besteak (trabariak).

3. Soinuak ebakitzeko organu eragikor eta independienteez baliatzen gara:

ezpainez: [b] eta [p]

mihitxapalaz: [d] eta [t]

mihigorputzaz: [g] eta [k]

Mihitxapalaz ("blade", "pala") ebakitako soinuak koroariak deitzen ditugu. Mihigorputzak, berriz, goiko, beheko eta atzeko soinuak bereziko ditu, bokal eta kontsonante ez-koroari (mihitxapalaz egiten ez direnak) eta ez-aurrekoen (hortzobietatik atzerago ahozkatutakoak) artean. Geroago zehaztuko dut puntu hau.

4. Lekuak, h. d., ahoskuneak, azkenez, aurrekoak eta ez-aurrekoak berezten ditu. Horrela [b] eta [p] aurrekoak ditugu: baina [k] eta [g] ordea, ez. [t] eta [d] ere aurrekoak ditugu eta koroariak gainera. Ezpainetakoak eta belarrak, noski, ez-koroari izango ditugu.

Ezpainhortzetako igurzkaria (/f/)

"f": Igurzkari, ezpainhortzetako, ahoskabea: [f]. Konturatu naizenez, eta soinuak oso gaizki entzun ez baditut behintzat, beti ezpainhortzen artean ahozkatzen dugu hau Baztanen, goiko hortzek azpiko ezpaina barneko aldetik ukituz. Ez dut inoiz ere bi ezpainez bakarrik ahozkatzen entzun, beste lekuren batean gerta daitekeen moduan. N'DIAYEk (1970, 20) "labiodentale" deitzen du: "kafi", "kafaka" eta horrelako hitzak.



[f] igurzkaria

Irudian ikus daitekeen moduan, ahogingila goratuta dago surtzuloetako iraganbidea hertsiz eta mihia, berriz, kasu honetan organo pasiboa denez gero, hurrengo artikulazioaren parada hartzeko prest dago. Airearen pasa gaineko hortzek eta azpiko ezpainak hersten dute baina hersketa hau ez da osoa, airea atera egiten baita, ezpaienetako saihetsetatik batez ere. Horrexegatik deitu dugu igurzkari.

("Afaldu", "aifetu").

Sudurkari eta Isurkariak (/m/, /n/, /l/, /r/, /ŕ/)

"m": Sudurkari, ezpainetako, ahostun: [m]. Soinu hau, [b] bezala ebakitzen dugu, baino ahogingila beheratuz eta surtzuloetako iraganbidea irekia



[m]

utziz. Hori dela ta, erredundantzia kaxa aberastu egiten da (maiztasunen neutralizazioak baldin badaude ere) bikoitza dugulako orain: sudurrean eta ahoan. Ahoari dagokionez, ezpainetan trabatzen da soinua; sudurrari dagokionez, berriz, soinua jarraikia dugu.

("Mingeña", "ametsetan", "amaberkine").

"n": Sudurkari, hortzobiatzeko, ahostun: [n]. Ahogingila beheratu egiten dugu, airea surtzuloetatik pasa dadin. Mihitxapalari dagokionez, soinu honen ebakera Baztango mintzoan ez da gaztelaniazkoa bezalakoa, ez eta NAVARRO TOMASek deskribatzen duena bezalakoa ere. Alde batetik, soinu hau ez da hortzobietan (albeoloetan) ebakitzen, gibeltxoago baizik. Atzerago artikulatzen dugunez gero, ez-aurreko dugu (palatogramek erakusten diguten moduan). Bestaldetik, gailurkari edo iraulia dugu fonema honen ahozkera, ebakera amaitzen dugunean mihipunttaren azpikoak ukitzen baitu ahosabaia. Beraz, bada, soinu honen ebakera ingelesezko /r/ erretroflesuekin konpara dezakegu: mihitxapalak hortzobien atzeko partean egiten du herskeeta eta gero, ebakera laxatu gabe, atzeratu egiten da. Horrelako kontsonanteak ez dira oso arrontak inguru hauetako hizkuntzetan baina bai suedieraz eta norvegieraz, Indiako zenbaitetan eta Ameriketako hizkuntza indiarren artean ere. Hala ta guztiz, mihipunttak egiten duen atzerakada ez da euskaraz beste hizkuntzetakoa bezain handia: pixka pixkat mugitzen da baina nahikoa palatogrametan garbi garbi agertzeko mihipunttaren azpia pintatzen bada.

Nik dakidala, fenomeno hauetaz jabetu den lehen hizkuntzalaria K. MACMURRAUGH dugu, Euskaltzaindiak antolatutako "Euskalarien nazioarteko jardunaldiak"etan agertu zuen bezala (ik. EUSKALTZAINDIA 1981, 78). Artikulaketa hau berau seinalatzen du "l" eta "ts" soinuendako ere. Nik egindako palatogrametan ere hauxe agertzen da:



[n] hortzobiatzekoa

Palatogramek hau ematen digute mihiaren gainekoa edo azpikoa pintatuz:



[n] hortzobiatzeko (iraulia)



[n] hortzobiatzeko (iraulia)

Dena den, sudurkari honek aurreratu edo atzeratu egin dezake ahoskunea, hurrengo kontsonantea nolakoa den: ezpainetako eginen dugu "b"ren aitzinean eta belarra, "g"ren aurrenean. Sudurkaria dugu benetazko kontsonante homorganikoa edozein artikulagune hartzen duelako. Alboko "l"a ere homorganikoa izanik, kontsonante koroariekin bakarrik batzen da eta ez bestela: ezpainetakoen aurrean, esaterako, jatorrizko ahoskune bera mantentzen du. Ez da, esan dudan moduan, "n"rekin horrelakorik gertatzen.

Hala ere, begira zer dioen AZKUEk (1906, 59, II. lib.) puntu hau dela ta:

> "Cuando le sigue uno de los labiales plosivos B y P, el sonido N pierde su carácter de linguolabial para convertirse en nasolabial o más bien mera resonancia; y generalmente se ha transcrito (por mera imitación de lenguas vecinas) como si fuera M. No suena así. ANBOTU no percibimos como AMBOTU, sino como A, una resonancia o zumbido, BOTU. Pronúnciese bien la M de LEMBESTE, DUMBOTS, LAMBARRI y se notará lo duro, lo ineufónico de MB, opuesto a una regla fonética nuestra según la cual "sonido que no puede terminar una palabra, está incapacitado para ser final de una sílaba".

Dena den, eritzi hau NAVARRO TOMASek (1925, 629) zuzentzen du eta GAVEL (1920, 288) ere guztiz kontrakoa dugu.

("Noiz", "norbaiti", "anka", "hau").

"l": Hortzobiatzeko, albokari, ahostun. Ahogingila goraturik, airea ahotik bakarrik pasa daiteke. Nik eginikako palatogrametan, eta kasu batean izan ezik, iraulia agertu zitzaidan:



|l| hortzobiatzeko
(mihiaren gainaldea pintatuz)



|l| hortzobiatzeko
(aldaki igurzkaria)

Isurkariak ebakitzen ditugunean mihitxapala dugu organo eragikorra: horrela, ezpainak nola diren hurrengo soinuak irekitzen dira. Mihitxapala, |n| ahozkatzerakoan bezala gaztelerazko |l| baino atzerago jartzen dugu baina haizepasa ez da guztiz hersten: mihiaren alderdi batetik (hrregatik albokari) edo bietatik —nola diren hiztunaren ohiturak— zirrito bat geratzen da eta ahoarteka horretatik ateratzen da aira presioian, igurzpen bigun bat eginez.

Hori horrela delarik, Baztango |l|a ez-aurreko dugu; bestalde, albokari hauek, haizepasa guztiz trabatu egiten ez dutenez gero, jarraikitzat joko ditugu. Hala ere, ez da ematen duen bezain erraza albokoen karakterizapena. Dakigun moduan, kontsonante trabarien berezitasunadugu ahosbideko erdialdean traba zerbait jartzea aireari. Albokarietan ere, ikusi dugunez, traba hori hortxe dago, mihitxapalaren medioz. Ikuspuntu honetatik "l" ez-jarraiki litzateke. CHOMSKY-HALLEren ustez (1968, 318) aipatzen dituzten hizkuntza diferenteetako zenbait prozesu fonologikok sostenga lezake teoria hau. Hala ere, prozesu fonologiko horiek guztiz arrotzak direnez gero Baztango mintzairan, hemen jarraikitzat hartuko da "l".

Alboko honek badu aldaki garbi bat Baztanen, palatogramek erakusten duten moduan eta batzutan aise laxoago ebakitzen dugu, mihipunttak hortzo-

bien atzekaldea pixkat ikutu baizik egiten ez duelarik, haize ebakera osoa eman gabe (ez nahasi, dena den, Katalanaren "l"-rekin, guztiz desberdina baita).



[l] mihiazpia pintatuz



[l] hortzobiatzeko

("Lepua", "alkia", "aulkie", "galbariua").

"r": Hortzobiatzeko, dardarkari bakuna, ahostuna: [r]. Fonema hau NAVARRO TOMASek deskribatzen duen gaztelerazko "r"a baino atzerago ebakitzen dugu Baztanen. Hala ere, "r" eta "l" edo "n"ren palatogramak nahiko antzekoak ian arren, mekanismo artikulatzailea diferentea dugu, kasu honetan ez bainuen "r" irauli baten errestorik ere aurkitu.

Nola ahozkatzen dira dardarkari bakunak? NAVARRO TOMASek deskribaketa hau ematen digu, erdararako: mihipuntta mehetu ondoren bildu egiten dugu barruko aldera eta bapatean goratu. Mugimendu honetan mihiak hortzobien atzekaldea ikutu egiten du gelditu gabe. Kontaktu bigun honek benetazko hersketa egiten du astiro hitzegiten bada. Ebakeraren ondotik, mihiak hurrengo artikulazioaren parada hartuko du.

CHOMSKY-HALLEren ustez, dardararen arrazoi fisikoa "Bernoulliren efektuan" datza. Mihipuntta eta ahosabaiaren arteko pasabideko presioia erori egiten da haizea indarrez pasatzen denean handik. Horrek mihipunttari eragiten dio eta dardaraka hasten da "without actually blocking the flow of air" (SPE, 318). Dardara hori, bada, bigarren mailako ondorioa dugu. Azken



|r| hortzobiatzekoa

batean, "r"ren aldaki guztiak jarraikiak ditugu. Fenomeno hau NAVARRO TOMASek (1977, 122) honela deskribatzen du:

> "En el mismo instante en que la punta de la lengua toca los alvéolos, es empujada con fuerza hacia fuera por la corriente respiratoria; rápidamente, su propia elasticidad le hace volver al punto de contacto; pero de nuevo es empujada hacia fuera con igual impulso, repitiéndose varias veces este mismo movimiento, que viene a ser como el aleteo de los bordes de una bandera desplegada y sacudida por el viento..."

Bibradura anizko dardarkaria ari da deskribatzen.

CHOMSKY-HALLEk seinalatzen digute "r" ahozkatzeko beste modu bat ere, nahiz eta oso antzekoa den: "mihi kolpea". Kasu honetan "r"ren artikulazioa horzkariak ebakitzeko erabiltzen dugun artikulazioarekin erlazionatzen da, lekua aldatuz, noski. Horzkari bat bezala ebaki daiteke, gibelago eta eragiketa muskular beraz baliatuz. Dena den, kasu honetan mihi kolpea arinago ematen da eta tinkadura ere aise bigunagoa da.

Nire ustez, Baztango mintzoan, deskribatu dudan azken artikulazio hau ematen da eta horregatik aunitzetan kanpoko jendeak ez du ongi berezten |d| edo |r| baten aurrean dagoen. Bestalde, hango jendeak ere maiz kara nahasiko ditu "edo" eta "ero", "ideun" eta "ireun" aldizkatuz. Batere tinkatu gabe ahozkatzen denez gero aztertzen ari naizen estilo arin honetan, aunitzetan desagertu egiten da: "geo" adi daiteke "gero"ren ordainetan. Mihitxapala, bada, bildu egiten da azkeneko hortz eta lehen haginen pareraino eta hor,

palatogramak erakusten duen moduan, hersketa garbia eman gabe, aitzineko aldera eramaten dugu. Ahogingilak surtzuloetako pasabidea trabatzen du.

[r] eta [ṙ] soinuen ahoskunea

("Hari", "erakutsi", "iriertia").

"rr": Hortzobietako, dardarkari anizkun, ahostun: [ṙ]. Goian deskribatutako mekanismoa. Zein da bi dardarkarien arteko desberdintasuna?

Alde batetik, NAVARRO TOMASek dioen moduan, "r"k dardara bakarra duen bitartean "rr"k bi edo gehiago du (hiru eta lauekoak ere aurkitu ditut eginikako sonogrametan); "r" bapatekoa dugu, "rr" berriz iraunkorrago; mihia kanpotik barrura doa "r"ren kasuan baina barnetik kanpora —behin eta berriz— "rr" ebakitzerakoan; "r"ren kasuan tentsio muskularra bibradura anizko dardarkarien baino eskasagoa da.

MITXELENA (1977), C. ZARABOZO (1972, 715) eta K. ROTAETXEk (1978, 127), besteak beste, gauzak antzera ikusten dituzte: bi dardarkariak tinkaduraren erak berezten ditu. CHOMSKY eta HALLEren ustez, ordea, bien arteko diferentzia presio indartuan datza:

> "The distinction between the tap [r] end the trilled [r] is produced by a difference in subglottal pressure: the trilled [r] is produced with heightened subglottal pressure; the tap [r], without it" (SPE 318).

"Tinkadura" eta "glotazpiko presio indartu" tasunak, erlazionaturik baldin badaude ere, (normalean elkarrekin dabiltza) ez dira berberak, SPEn pixka bat aurrerago azaltzen den moduan. Hala ere,

> "It must be noted that heightened subglottal pressure may be used in the production of a speech sound without involving tenseness (in the supraglottal musculature) (SPE 326).

Dena den, CHOMSKY-HALLEk ez dute arrazointzen zergatik [r] eta [ṙ]ren arteko diferentzia tasun batean, eta ez bestean, bilatu behar dugun. Han ematen diren adibideak (hindieraren trabari ahostun hasperenduak) ez dira dardarkariarenak.

Gauzak honela, HARRISek eta SCHANEk [± tenso] tasunaz baliatuz desberdintzen dituzte, baina OTEROk (1981) [± represidad] erabiltzen du (SPEn markatutako ildotik eta izena aldatuz). Gure lanean [± tinkatu] erabiliko dugu.

("Erre", "arrazoña", "zorrizue", "harpatu").

Igurzkariak (/s/, /ś/, /š/)

"z": Euskararen fonetika deskribatu nahi izan denean, igurzkari eta afrikatuek planteiatu dituzte prolemarik berezienak:

> "Donde la lengua despliega un cierto lujo es en las sibilantes, porque hay una "s" apical, de tipo español, que se escribe "s" y otra predorsal, pronunciada con la punta de la lengua baja..." (MITXELENA 1977b, 32).

Fonema hau, [s] traskribatuko da, eta ondotik datozen biak ("s" eta "x") bereziki landuak izan dira AMADO ALONSOk (1922, 57-64) egindako lan batetan eta horretaz gainera, aurkezten dituzten berezitasunengatik edo izango da, NAVARRO TOMASek (1925, 612) ere aparteko lekua eskeini zien bere istudioan.

Inon baldin badago kontsonante hauek argi argi zaintzen den lekurik, Baztan da. Komentario hau kanpotik heldu den bat baino gehiagori entzuna diot. Aipatutako lan honetan, xehetasun guztiekin ematen digu fonema hauen deskribapena AMADO ALONSOk. Lan horiek makina eta tresneria guztiaz baliatuta eginak daudenez gero, ez ditut hemen zalantzan jarriko berak egindako esperimentuak. Hala ere, bi gauza gerta liteke beti esperimentuak egiterakoan, eta maizkarago berriz, aztertu nahi dugun hizkuntza ondo ezagutzen ez badugu:

a) Gure informanteak "hobeki" nahi du hitzegin. Hau ez da gerta daitekeen gauza, beti gertatu egiten dena baizik. Baztandar batek, orain dela berriki, "telefono" hitza irakur zezan (azentua bilatzeko) eskatu niolarik, "urrutitza" esan zidan. Ez dakit, beragandik kanpo, nork erabil dezakeen hitz hori. Era berean AMADO ALONSOk ematen dizkigun adibideetan, hauek irakur daitezke, idazkera normalean jarrita: "zanguek", "zanguak", "pixa", "pixauntzia", "gauxagoxua", "txoria", etab., beste batzuen artean. Nire ustez, horiek ez dira horrela esaten Baztango mintzoan, hizkera "elegante" bat egin nahi ez bada behintzat. Hitz horiek, beste honetara entzungo ditugu: "zangoak" edo "zanguak", "pize", "pizuntzie" (baliteke "pixe" eta "pixuntxie"

haur ttar batekin ari bagara, baina ez "pixauntzie" eta "pixauntzia"), "gauze goxua" edo "gauxe goxua", "xorie" edo"zorie" (ez, "txoria"), etab.

b) Aztarna palatografikoak lagun batekin bakarrik egin zituen, Madrilen bizi zen lekaroztar batekin.

Goikoa esaterakoan ez diot deusik ere kendu nahi balio handikoa den lan horri: aitzineko lerroak paratu baldin baditut, berak baieztatzen dituen gauza zenbait zalantzazkoak izan daitezkeela adierazi nahiean ipini ditut.

CAMPIONen eritziaren kontra, AMADO ALONSOk dioen moduan, Baztango "z" (gure traskrizioetan /s/ ohi den moduan, KILBURN MACMURRAUGHek hain ongi ikusten ez badu ere) ez da,nik dakidala, horrenbestetaraino urruntzen Gipuzkoako zenbait lekutan ahozkatzen denetik. Fonema hau igurzkari, ahoskabe, bizkarralbeolare eta mihia beheko hortzen kontra jarriz ebakitzen dugu. AMADO ALONSOk eginikako deskribaketa honela laburtuko dut:

Ahogingila goraturik eta ahoskordak irekiak, mihitxapala aurreratzen dugu azpiko hortzak ukitu arte. Bizkarraurreak (predorso) hortzobiak ukitzen ditu hersketa osoa eman gabe (igurzkaria da soinua) zirrito biribildu bat eginez. Hobietatik aitzineko aldera zirrito hori zabaldu egiten da. Mihipunttak azpiko hortzen amaiera bilatzen du, eta ez sorrera (beste euskalkietan gertatzen den maneran), fonema hau ebakitzen denean. Gainera, beheko baraila aurraratu egiten da eta azpiko hortzlerroa gainekoa baino aitzinatuago gelditzen da. Horrela, goiko hortzek mihikoroarekin egiten dute igurzpena. Arrazoi horiengatik, nahiz eta "z" artikulatzeko mekanismoak beste lekuetako mekanismoaren antza duen, akustikoki "erdaratuago" entzuten dugu, nahiko aldatua. Hortzobien pareko igurzpena biribildua da, beste lekuetan bezala; baina zirritoaren biribila desegiten da gaineko hortzlerroraino iristen deneko eta belarriak entzuten duena, azken batean, bigarren igurzketa luzatu (eta ez biribildu) honek emandako soinua da.

> "Desaparecido el acanalamiento lingual, la estrechez linguodental ya no será redondeada, sino alargada, lo cual da a la articulación ese timbre áspero que recuerda a la "z" castellana, de fricación también alargada" (AMADO ALONSO 1923, 58).

Fonema hau ebakitzerakoan, bada, mihialbeoloen pareko igurzpena biribildua dugu; mihihortzeko igurzketa, berriz, luzatua eta latza:

> "cuya impresión domina en el oído."

> "Ahora pues, podremos definir este fonema como una articulación sorda, predorsal, fricativa, alveolodental, de fricación redondeada en los alvéolos y alargada en los dientes."

Hau da ematen duen palatograma, hemen erabiltzen ari naizen eredura moldatu ondoren:



[s] A. ALONSOren arabera

Lagun desberdinekin egin nituen nik palatogramak Arizkun eta Erratzun, eta, nire ustetan, AMADO ALONSOren eritziak aldatu beharrean daude xehetasun batzutan. Fonema honek bi ahozkera du han: bata, hizkuntzalari honek eman duena eta oraintxe deskribatu dudanaren antzekoa. Hala ere, nik ez nuen azpiko hortzlerroaren aurreraketa nabarmenik aurkitu: mihipunttak azpiko hortzen puntta ukitzen du (barnekoaldetik, noski) baina gaineko hortzetan ematen den hersketa hedadura A. ALONSOk aipatzen dituen 13 mm baino handiagoa da: "z" hau oso latza da.

Beste zenbaitek, ordea, akustikoki desberdina zen "z" bat ahozkatzen zidaten, hitz berean eta gela berean, gainera. Bi kasutan aurkitu nuen anaia zaharrenak "z" biguna ebakitzen zuela ("z" arronta, nolabait esateko) eta gazteenak, berriz, "z" latza (AMADO ALONSOrena). Nere ustetan, lehen "z" (hau da, ez A. ALONSOk deskribatzen duena, bestea baizik) aise hedatuago dago Baztanen, diferentzien bila ibiltzen diren hizkuntzalariak edo fonetistak honekin konforme egon ez arren. "z" bigun hau ahozkatzeko, mihipunttak azpiko hortzak oso osoan (oietatik) jotzen ditu, egindako proba bereziek argi aski utzi zidaten bezala, Beste mekanismo guztia, berdin. Hona hemen palatogramak:

|si azpiko hortzlerroa oietan ukituz (nire palatograma)

|s| azpiko hortzlerro puntta ukituz (nire palatograma)

NAVARRO TOMASek Tolosa aldean egin zuen palatogramekin antza handia dute nire palatogramek:

|si NAVARRO TOMASen arabera (neuk moldatua)

Ikus daitekeenez, ebakera hobietatik aise aitzinago egiten da edozein kasutan ere. Alde honetatik, soinu honen artikulazioa aurrekoa dugu. Bestalde, ebakera hertsizkoa denez gero, hedatua dela esan behar (ikusi tasunen definizioa geroago). Mihitxapalak, bai kasu batean bai bestean, artikulatzen du fonema hau, bi "z" horien artean gradu diferentzia txiki bat egon arren. Bigarren "z" hartuko dut analisi honetan errepresentagarri: beheko baraila zertxobait —beharbada— aurreratuz egiten duguna eta akustikoki beste lekuetakoen antzeko: aurreko, hedatu, eta koroari. Lehen "z" latza ahozkatzen zuen bati buruz hauxe esan zidaten: "Bai, horrek halako mintzo zezela du". Esan bezala, nere ustetan, beste "z" biguna arrontagoa da han; nik neuk ere, horrela egiten dut.



|s| biguna eta arrontena |s| latza |s| biguna

("Zato", "zakurre", "zurruke", "zerrie", "aza", "zopa", "zikine").

"s": Ahogingila goratua, ahoskordak irekiak (ahoskabea, orduan), igurzkari eta goian "z"ri buruz eginikako ohar bera kontutan hartuz |ś| aurkeztuko duguna.

Baztango mintzoko "s"a ez da beste euskalkietakoetatik gehiegi urruntzen. Are gehiago, NAVARRO TOMAS eta A. ALONSOren ustetan soinu bera aurki daiteke Espainiako Ifarraldeko leku askotan:

> "Y digo *s* norteña, porque esta pronunciación se extiende por casi todo el norte de España" (A. ALONSO 1923, 59).
>
> "En el norte de España, entre vascos, navarros y riojanos, la *s* suele ser pronunciada con un matiz chicheante, más o menos desarrollado, que la distingue de la *s* española normal" (NAVARRO TOMAS 1977, 110).

Fonema hau hortzobietan ahozkatzen da A. ALONSOk eta nehorrek hartutako palatogrametan ikusten den moduan, honek pixka bat atzeratuago aurkitu bazuen ere. Nik, gazteen artean (40 urtetik behera) egin ditut probak eta baliteke zaharragoek gibelago ahozkatzea gaur egun ere. Hala ere, bi palatogramak antza handikoak ditugu.

[ś]
nire palatograma



[ṡ]
A. ALONSOren palatograma, neuk moldatua



[ṡ] NAVARRO TOMASen arabera, neuk moldatua

Mihipuntta bildu egiten dugu igurzpena hortzobien parean egiteko, bizkarraurrea gaztelerazko "s"an baino gorago edukiz eta igurzpena hor ere eginez, baina mihitxapalak egiten duenarekin parekatuz gero, aise bigunago. Hortik atzera, igurzpena urratzen hasten da eta A. ALONSOk seinalaztatzen duen moduan, laugarren haginen parean, mihiak hagin punta bakarrik ukitzen du. Ahosabai bigunean berriz ere estutzen da zerbait arteka. Hizkuntzalari berak dioen moduan, gazteleraz gertatzen ez dena, fonema hau ebakitzerakoan erresonantzia kaxa handitu egiten dugu ezpainak apur bat aurreratuz. Beharbada arrazoi horregatik aurkitu du zenbaitek (TXILLARDEGI, N'DIAYE, etab) "s" irauli bat –beraz, "s"a iraulia izango balitz, hortzobietatik atzerago ebakiko genuke erresonantzia kaxa handituz eta orain deskribatzen dudan "s" horren antzeko (akustikoki) zerbait ahozkatuz–. Ez dut uste kontua hori den: egin ditudan palatogrametan ez da inoiz ere "s" iraulirik atera. Fonema hau, bada, aurrekoa da, hersketa ez da "z"an bezain hedatua (apikariekin hori gertatzen da beti) eta mihitxapala goratzen dugunez gero, koroaria. Jarraikia, jakina.



[ši hortzobietakoa

("Osasune", "osua", "hasi", "sarri", "soka").

"x": Fonema honi buruz oso gutxi dio A. ALONSOk. Aurrekoak bezala, igurzkari eta ahoskabea dugu. Baina,

> "No se trata de un matiz más palatal de la *s* que acabamos de describir, sino de una articulación bastante diferente. En efecto, nos hallamos frente a una articulación fricativa, cuya mayor estrechez es de unos 4 mm en el principio de los alvéolos; las cuerdas vocales abiertas; la punta de la lengua se apoya contra las encías y nacimiento de los dientes inferiores; y se apoya fuertemente,

como lo indica el ligero abarquillamiento predorsal que corre de canino a canino y que ha dejado su huella en el palatograma. Al oído, como al análisis, presenta gran semejanza con la *ch* francesa, y se diferencia claramente de la *s* o *x* del vasco vizcaíno, que es una fuerte y extensa palatalización de la *s* apical" (A. ALONSO 1923, 60).

A. ALONSOk egiten duen deskribaketa honek ohar batzu merezi ditu. Kontura gaitezen, lehenengo ta behin, aitzineko igurzkarietan mihitxapala genuela organo eraginkorra (horregatik esan dugu koroariak direla). Kasu honetan, mihiko giharre diferenteek egiten dute ebakera: mihitxapalak, alde batetik eta bizkarraurreak, bestetik, frikazio puntua atzerago eramanez. Goian jarri dudan testu horretako esaldi batek utzi nau harriturik: "la punta de la lengua se apoya contra las encías y nacimiento de los dientes inferiores; y se apoya fuertemente". Nik neuk honela ahozkatzen ez nuelako, h. d., nire mihipunttak ezer ere ukitzen ez duelako, hori egia den ikusteko proba bereziak egin nituen. Zenbait lagunen mihiaren puntta puntta pintatu nuen eta "xo" hitza esan arazi nien: inork ere ez zuen markarik utzi hortzetan. Beraiei galdetu nienean ea gaineko ala azpiko hortzak ikutzen zituzten, denek esan zidaten, salbuespenik gabe, ez zutela ez bata ez bestea jotzen. Egindako palatograma arrontetan ere gauza berbera atera zitzaidan. Igurzpen puntua aise gibelago ikus daiteke nire palatogrametan A. ALONSOk eman zuenean baino:



|š| (nire palatograma)



|š| A. ALONSOren palatograma)

Bi kasuetan, nahiko hedadura handia dugu: jakina, ikus daitekeenez, A. ALONSOren hiztunak hertsiago ebakitzen zuen soinu hau, berak dioen bezala, 4 mmko zirritoa utziz haizea pasatzeko.

Nere ustez, bada, soinu hau honela ahozkatzen dugu: ahoskordak ireki, ahogingilak surtzuloetako pasa hersten du eta mihigorputza parada neutrotik (geroago azalduko da hau) zerbait gorago. Horrela, bizkarraurreak ahosabai gogorraren parean egiten du hersketa baina baita mihitxapalak ere hortzobien muga mugan. Zentzu honetan, "s" soinuaren aldakiekin konparatzen badugu, ñabardura palatala hartzen du eta ez da hura bezain aurreraturik ebakitzen. Ikusten denez, hersketa ere handiagoa da, azkeneko soinu hau ez baita mihi gailurraz (apice) bakarrik ebakitzen. Esan bezala, mihipuntta —lodi lodi— airean dago ezer ere ukitu gabe, behekoaldera zerbait bihurturik baldin badago ere. Deskrizio hau NAVARRO TOMASek eman zuenari hurbiltzen zaio gehiago A. ALONSOk emandakoari baino.

Hiru soinu hauek (/s/, /ś/, /š/) ahostun bihur daitezke bokal artean daudelarik.



[š]

Fonema hau baino aitzinago ahozkatutakoak aurrekotzat hartzen dituzte CHOMSKY-HALLEk. Beraz, bada, soinu hau ez aurreko, goiko (mihigorputza goratu da), koroari eta hedatu dugu. "z"rekin konparatuz gero, biak dira hedatuak (hersketaren hedadura handia da bietan), baina akena "z" baino atzerago ebakitzen da. Bestalde, "z" ahozkatzerakoan mihi gorputza ez da organo èragikorra eta alderdi horretatik, tasun honi dagokionez, neutroa da. Deskribatzen ari naizen soinu hau "s"rekin konparatu nahi baldin bada, atzerago ebakitzen dugu "x", eta "s" en kasuan hersketa ez da hemen bezain handia, apikariago baita.

Soinu hau, fonema "aurreko" eta benetazko sabaikarien artean ebakitzen dugu eta beste hizkuntzetan aurkitzen den antzeko zerbaitekin konpa-

ratzekotan (*ch* frantsesa atzenduz) FANTek (1970, 163) deskribatzen dituen isurkari sabaikalduekin (palatalizatuekin) konpara liteke, zentzu batean bada ere (aurreko eta goiko direlako azkenok):



[r] sabaikaldua
(errusieraz)



[l] sabaikaldua
(errusieraz)

Oharra: Soinu hauek ez dira benetazko sabaikariak, sabaikalduak baizik.

Balio adierazkorra eman nahi diogunean hizketari erabiltzen dugu gehien batean fonema hau, baina horretaz gain lesikoiko morfema batzutan ere zuzenean txertatua aurkituko dugu: "hauxe", "haundixe", etab., adierazkortasuna aurkezten duten legeetatik kanpo. Horregatik, hain zuzen, sartu dugu hemen.

("Xo", "xuketu", "xaona", "perexile", "prexitu", "xorie").

Afrikatuak (/c/, /ć/, /č/)

"tz": Orain arte ikusi ditugun hiru igurzkariek kide afrikatuak ere badituzte. Hau dugu, hain zuzen ere, "z"ren kidea. Igurzkari eta afrikatuen arteko desberdintasuna zera dugu: igurzkarietan frikazio bat ematen da, kontaktu osoa egin gabe. Horregatik entzuten dugu "zuztu" hori. Afrikatuek, alabaina, bi une dute: lehenengoan, trabariekin gertatzen den moduan, benetazko hersketa egiten dugu, baina kolpean laxatu beharrean (Horzkarietan, adibidez, horixe egiten dugu) pixkanaka pixkanaka libratzen da traba. Hori dugu bigarren denbora.

Lehen unean egiten den hersketa ez da beti leku berean egiten eta nolakoa den bigarren parteko igurzkariaren ahoskunea, aurreratu edo atzeratu egiten da. Bestalde, trabari leherkari eta afrikatuen arteko desberdintasuna, bigarren mugimenduan aurkitu behar da: azkenekoetan, kontsonantearen laxaketa pixkanaka egiten da (frikarietan bezala) eta ez kolpean, leherkariek egiten dutena. Horrela begiraturik, afrikatuek –ortografian aurkezten dugun moduan– leherkariekin dute antza, alde batetik, eta frikariekin, bestetik.

Bi mugimendu bat bateko horiek direla eta, soinu hauen izaera mono edo bifonetikoaz eztabaida izan da eta K ROTAETXEk (1978, 87 jar) monofonematismoaren alde argumentatzen du, argumentazio zehatza erabiliaz eta gaur egun oro har onartuta dagoen eritzia beste ikuspuntu batetik finkatuz. Euskarazko hiru afrikatuek, bada, hiru fonema osatzen dute. Hirurak ahoskabe ditugu nahiz eta, bakan batzutan, erdaraz ere entzun daitekeen "zas!" horren kidea aurki daitekeen Baztanen, oso gutxitan erabilia: "dza!". Soinu hau ez da mutua (ahostuna da) eta sistima fonikoan guztiz bazterrekoa da.

"tz" fonema [c] sinboloaz aurkeztuko dut lan honetan. Ahogingila goraturik eta ahoskordak irekita, bizkarraurreak hortzobietan egiten du hersketa osoa baina ebakera laxatzerakoan hortzlerroak banatzen ditu pixka bat bata bestetik mihiaren parada aldatu gabe. Hortzobietako hersketa bizkarraurreak egiten du eta gaineko hortzak, berriz, mihipunttak bigunki ikutzen ditu. Elkarrizketa arrontean hersketa egiten den une berean laxatzen da, ebakera bigunа emanez. Hona hemen A. ALONSOren eta nire palatogramak, parez pare:

[c] (nire palatograma)

[c] (A. ALONSOren palatograma)

A. ALONSOk nik baino aurreratuago ebakia aurkitu zuen. Ikusi dugun bezala, haren ustetan Baztango "z" ahozkatzerakoan mihipunttak azpiko hortzen gaineko bazterra nahi zuen (nire palatogrametan beste ahoskera "biguna" agertu zen hedatuago, lehen esan dudan moduan) eta mihipuntta hain goraturik izaki, mihitxapalak gaineko hortzen kontra egiten zuen ebakera. Horrek azal lezake bi palatogramen arteko diferentzia. Dena den, bai kasu batean nola bestean, soinu hau aurrekoa dugu.



[c] ahozkeraren bi uneak

("Hotza", "atzo", "Urritzate", "Aritzakun", "atzaparrak", "behatzak" "arrantzari").

"ts":

> "Hemos llegado a uno de los sonidos más interesantes del vascuence, que el Sr. Campión llama "característico", refiriéndose, sin duda, no a la ausencia de este sonido en cualquier otro idioma, sino en los que tienen contacto con el vasco" (AMADO ALONSO 1923 60-61).

Goian "tz"ri buruz esandoak balio digu hemen ere: fonema hau [ś]ren kide afrikatua dugu: [ć]. A. ALONSOk seinalaztatu zuen bere garaian ebakera apikaria egiterakoan oso ebakera mehe eta zehatza zela, Gipuzkoako alderdietan egiten dena baino garbiagoa. Ikus daitekeenez, nire palatograma ere haren palatogramaren antzekoa da:



[ć] nire palatograma



[ć] A. ALONSOren palatograma

Bestaldetik, aipatutako lanean, K. MACMURROUGHek iraulia dela esaten du. Ni ez nator berarekin bat puntu honetan: mihitxapalaren azpiko aldea pintatu nienean berri emaleei, batzuk bakarrik utzi zidaten marka zerbait hortzobietan eta marka hori "n" eta "l" fonemetan baino aise bigunagoa zen, indarrik gabe bezalakoa. Seguraski ere, mihipunttak utzitakoa, ez mihipuntta azpiak:



[ć] iraulia (?). Batzuk bakarrik utzi zuten marka eta oso bigun.

Interpretazio hau A. ALONSOk ematen duenarekin bat dator. Beraz, bada, ahoko giharreak "s" bat ebakitzeko bezala paratzen ditugu eta hersketa osoa eman bezain laster, laxatu pixkanaka.



[ć]ren ahozkeraren bi uneak

Ebakera hau, kontsonante irauliekin konparatzen baldin bada, nahiko desberdina dela kontura gaitezke:



[n] hortzobiatzekoa

("Itsasua", "eltsuntse", "oraintsu", "otsua", "atsikie").

"tx": Hirugarren afrikatu hau ([č] traskribatuko dugu) "x" fonemaren kidea da eta han deskribatu dugun artikulazio berbera da, hersketa osoa emanez, oraingoan. Soinu hau gazteleraz ere agertzen da eta "x"rekin gertatu zaidan moduan, A. ALONSOk ematen duen palatograma eta nik hartu ditudanak ez dira berdinak:



[č] (nire palatograma)



[č] (A. ALONSOren palatograma)

Nire ustez, aldakiak baldin badira ere, Baztango ebakera beste lekuetakoa bezalakoa dugu. NAVARRO TOMASek honela deskribatzen du erdarazkoa:

> "La punta de la lengua no desempeña en este caso función esencial, quedando generalmente libre y como suspendida frente a los incisivos superiores, o bien, como ocurre en la pronunciación de algunas personas, apoyándose más o menos contra los incisivos inferiores sin que por esto haga variar sensiblemente el timbre de dicha articulación" (NAVARRO TOMAS 1977, 126).



[č]ren ahozkeraren bi uneak

("Urtxintxe", "etxia", "atxikie", "txarra").

Sabaikoak (/d̠/, /t̠/, /l̠/, /n̠/)

"dd" eta "tt": "dd" eta "tt" kontsonanteen diferentzia ahoskorden dardaran aurkitu behar da: lehena (ŷ|) aurkeztuko dut) ahostuna den bitartean, bigarrena ([t̠| fonetikoki), ahoskabea dugu.

Kontsonanteok ahosabai gogorraren kontra hersketa osoa eginez ebakitzen dira: organo eragilea, kasu honetan, mihigorputza dugu (bizkarraurrea) eta mihia bere parada neutrotik aldatuz ematen ditugu soinuok. Ahoskunea, bada, "tx"ren kasuan baino pixka bat gibelago dago eta mihipuntta, airean gelditu beharrean, azpiko hortzen kontra jartzen dugu. Konturatu ahal garenez, "z" ebakitzerakoan ere mihipunttak parada bera du baina "z"ren kasuan mihitxapala dugu organo eragikorra. Beste kontsonantearen kasuan, ordea, mihigorputza.

Ortografian "dd" ("ddago"") eta "j" ("jo") erabiltzen da. A. ALONSOk hartutako palatograma eta nik egin nituenak oso antzekoak dira:



[ŷ] leherkaria
(nire palatograma)



[ŷ] leherkaria
(A. ALONSOren palatograma)

Soinu hau ez da afrikatua, benetazko leherkaria baizik, A. ALONSO ongi konturatu zen moduan.

Egin dudan deskribaketa hau, dena den, ez dator guztiz bat A. ALONSOk egin eta NAVARRO TOMASek (1925, 625) laburtzen duenarekin:

> "En pronunciación baztanesa, la ţ es predorsoalveolar. Los dientes superiores aparecen ya en esta variante libres del contacto de la lengua. La punta de la lengua queda suspendida frente a dichos dientes, sin tocar en ellos ni en los inferiores. Esta posición del ápice se da en guipuzcoano, como en español, en la articulación de la č. En la ţ baztanesa, la adherencia del dorso no se manifiesta solamente sobre los alvéolos, sino también, con relativa extensión por la parte de los molares a ambos lados del paladar. Su distensión, según el énfasis con que se pronuncie, varía entre la explosión y la africación."

Sabaikarien ebakera orain arte ikusitako beste soinuen ahozkeratik urruntzen da: belarrak eta bokalak kenduz gero, beste soinuak ezpainez edo mihitxapalaz ahozkatzen ditugu eta horren arabera koroariak edo ez-koroariak izan daitezke. Ahoko hortzobietatik aitzinago ebakiz gero, aurrekoak deituko ditugu. Sabaikariak, ordea, mihigorputzaz ahozkatzen direnez gero, goikoak edo ez-goikoak izanen dira, mihigorputzarekin erlazionatzen diren tasunen arabera. Soinu guzti hauen artean, [š] eta [č] ditugu "mistoak", mihitxapalak eta bizkarraurreak ebakitzen dituztelako. Orain arte deskribatzen ari naizen benetazko sabaikarien kasuan mihiaren bizkarrak ebakitzen ditu.

Fonetikako literaturak "sabaiko" (palatal) eta "sabaikaldu" (palatalized) kontzeptua berezi izan ditu: lehenak ditugu benetazko sabaikariak baina bigarrenak artikulaketa laguntzaileei dagozkie. Euskarazko kasuan lehen kontsonanteen aurrean gaude. Kontsonante "sabaikalduetan" bi ahoskune daude: lehena, garrantzizkoena; berehala bigarrena, bokal antzeko artikulaketa gainditzen diogula lehenengo artikulazioari.

> "The subsidiary articulations consist in the superimposition of vowel-like articulations on the basic consonantal articulation. In palatalization the superimposed subsidiary articulation is [i] like" (SPE, 306).
>
> "*Palatalization* is the addition of a highfront tongue position, like that in [i], to another articulation. Russian and other Slavic languages have a series of palatalized consonants that contrast with their nonpalatalized counterparts" (LADEFOGED 1975, 207).



[ŷ] eta [ţ] leherkariak



[t^{y}] sabaikaldua, hersketa egiterakoan (ez dago euskaraz)

[ŷ] eta [ţ] leherkarien berezitasunak:

- ez dira aurreko
- ez dira koroari
- goikoak dira.

[t^{y}] sabaikalduaren berezitasunak:

- aurrekoa
- koroaria
- goikoa.

Leherkari hauek badute beren kide igurzkaria ere, palatogrametan ikusten den moduan.



[y] igurzkaria



[y] igurzkaria

("Ttalla", "ttarra", "ttañtta", "yakin", "onddo", "uyue", "yorie", "yoka").

"ll": Sabaiko, albokari [l̻] aurkezten da. Ahogingila goraturik, ahoskordak dardaratuz, aitzineko soinuak bezal bezala ebakitzen da, baina mihiaren alde batetik edo bietatik, nola diren hiztunaren ohiturak, zirrito bat utziz haizea pasatzeko. Berriz ere hemen, ondoko sudurkarian bezala, kontsonante sabaikari eta sabaikalduak berezi behar dira. Euskaraz eta gazteleraz benetazko sabaiekoak dira, NAVARRO TOMASek (1977, 134) ongi aski seinalatu zigun bezala. Hauxe da nik hartutako palatograma:



|l̪| sabaikoa



[l̪] sabaikoa

("Ttalla", "ollarra", "ollua", "ollakie").

"ñ": Sabaikoa hau ere, "ll"k bezal bezalako ahoskunea du, baina oraingoan, noski, ahogingila beheratu egiten dugu, haizea surtzuloetatik iragan dadin. Palatograma:



|n̪| sabaikoa



[n̪] sabaikoa

("Iñor", "iñoiz", "iñautiak", "iñezture", "gañe", "artzañe").

AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

ALONSO, A., 1923: "Consonantes de timbre sibilante en el dialecto vasco-baztanés" in *III Congreso de Estudios Vascos*. S. Sebastián: Eusko Ikaskuntza.

AZKUE, R. M., 1906: *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Paris: Paul Geuthner.

CHOMSKY, N.-HALLE, M., 1968: *The Sound Pattern of English*. New York: Harper and Row.

EUSKALTZAINDIA, 1981: *Euskalarien nazioarteko jardunaldiak*. Bilbo: Euskaltzaindia (Iker 1).

FANT, G., 1970: *Acoustic theory of Speech production*. The HAGUE: Mouton.

GAVEL, H., 1920: *Eléments de Phonétique Basque*. Paris: Edouard Champion.

HARRIS, J., 1975: *Fonología generativa del español*. Barcelona: Planeta.

LADEFOGED, P., 1975: *A Course in Phonetics*. New York: Harcourt Brace Jovanocich, Inc.

MITXELENA, K., 1977a: *Fonética histórica vasca*. S. Sebastián: Diputación de Guipúzcoa.

MITXELENA, K., 1977b: *La lengua vasca*. Durango: Leopoldo Zugaza.

N'DIAYE, 1970: *Structure du dialecte basque de Maya*. The Hague: Mouton.

NAVARRO TOMÁS, T., 1925: "Pronunciación guipuzcoana" in *Homenaje ofrecido a Menéndez Pidal*, Tomo III (593). Madrid: Librería y Casa Editorial Hernando.

NAVARRO TOMÁS, T., 1977: *Manual de pronunciación española* (19. edición). Madrid: CSIC.

ROTAETXE, K. 1978: *El euskera estructural de Ondárroa*. Durango: Leopoldo Zugaza.

TXILLARDEGI, 1980: *Euskal Fonología*. S. Sebastián: Ediciones Vascas.

ZARABOZO, C., 1972: "Two borrowed Sound Changes in Basque" in *ASJU*.